

DONOSTIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Donostiako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
 - **Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa puntuala, AÑ.01 Atotxa Erreka eta AÑ.033 Añorga Txiki (III) hirigintzako esku-hartze areetakoa** (2003ko azaroaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).
 - **Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa, «LM.12 Sarroeta» (Loiola-Martutene) Hirigintzako Esku Hartze Areari dagokiona** (2003ko irailaren 10an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

- **Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa, «AL.05 Lardi Alde» Hirigintzako Esku Hartze Areari dagokiona** (2003ko abenduaren 9an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur lurraren, 175, 232, 461, 607 eta 809 zona katastralen mugak aldatzen dira.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.